

# HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

[marina.sagastizabal@ehu.eus](mailto:marina.sagastizabal@ehu.eus)

Lehen Hezkuntzako Gradua 1. maila

# EDUKIAK

## 2. GAIA: SOZIALIZAZIOA

- Soziazazioaren funtzioak, motak eta etapak
- Soziazazio agenteak: Familia



# 2. GAIA. Sozializazioa

Sozializazioaren funtzioak, motak eta etapak

# Sozializazioaren Funtzioak



Pertsona jendartearen partaide bihurtzen da ezagutza, trebetasun eta norma sozialak barneratuz

Errealitate sozialaren (rolak, normak, baloreak, tradizioak etab.) barneraketa prozesua da

Sozializazioaren prozesuaren bitartez "norbanakoak jendartea bere barnean sartzen du"

Sozializazio agenteak: Familia, Parekoen Taldea, Eskola, Komunikabideak

# Sozializazio motak

## Lehen Sozializazioa

- **Haurtzaroan** izaten da. Inork ezin du aukeratu zein errealitate sozialean jaioko den, errealitate horrek eragin handia izango du pertsonon bizitzan
- **Mundu filtratu bat** ikasten dugu, nahiz eta hortaz jabe ez izan
- Banakotasunaren edo norberaren gaineko **kontzientzia** eta besteen kontzientzia (familia, lagunak, arauak) hartzen da
- **Familia barruan** garatzen da, batik bat
- Afektibitateak garrantzia handia du
- **Oinarrizko arauak** barneratzen dira, errepikapenaren bidez



# Sozializazio motak

## Lehen Sozializazioa

- Umea bere **familiarekin identifikatu** egiten da
- **Hizkuntza** barneratzen da
- **Identitate** bat (izateko era) barneratzen dugu
- Informaltsauna: identifikazio afektibo-emozionala oinarritzkoa
- **Kontzientzian sendo** barneratzen diren edukiak



"G.H Mead señalaba que el recién nacido sólo tiene dos instintos: chupar y llorar. Todo lo demás es cultura (...) En los niños la compañía lo es casi todo, hasta el punto de que si la compañía es lobuna los niños salen igual de lobunos. Y el ejemplo podría multiplicarse: un niño o niña europeo educado entre esquimales será un esquimal y viceversa (...) No es absurdo, por tanto, concluir que los ejemplares de la especie humana son seres de cultura más que de naturaleza" (Lamo de Espinosa, 1996: 16).

Zer gertatuko litzateke norbait talderik gabe haziko balitz?

Nolakoak dira sozializatu gabeko umeak?

Genie "ume basatia"ren kasua:  
<https://www.youtube.com/watch?v=MvToobGcaQw>

## LEHEN SOZIALIZAZIOA

Lehen sozializazio prozesua arrakastatsua izateko beharrezkoa da: haurrak lotura egonkorak izatea helduren batekin, lotura afektibo onak, denbora eta arreta nahikoak eta arrazoizkoak (Taberner, 2008).

# Sozializazio motak

## Bigarren Sozializazioa

- **Familiaz kanpo** gertatzen da: ez dago horrenbesteko karga emozionalik
- Gai gara **identifikazio-maila minimo** batekin funtzionatzeko
- Harreman anonimoak eta formalak
- Afektibitate gutxiago dago
- Irakaslearekiko eta lagunekiko harremanetan gertatzen da





# Sozializazio motak

## Bigarren Sozializazioa

- Rolak eta jokamolde espezializatuak ikasten dira
- **Errealitate sozial asko**: mundu zehatzagoak ikasi
- Barneratutako edukiak **kontzientzian ahulago** barneratzen dira
- Sozializazioa motxila bat balitz, lehen sozializazioaren edukiak behean daude, ateratzeko zailagoak



# Sozializazio motak

## Bigarren Sozializazioa

- Bigarren sozializazioan **rolak antzezten ikasten dugu**: modu tipifikatu batean portatzen ikasten dugu, modu jakin bateko pertsona bat izaten
- Antzekotasun handia du **aktore-lanarekin**: jendarteak gidoi bat eskaintzen digu rol bakoitzerako, eta guk paper hori antzezten dugu
- Rol batzuek beste batzuek baino **identifikazio handiagoa** eskatzen dute (Correoseko langilea vs ama izatea) eta rol bera antzezteko **modua ere aldatu egiten da**
- Rolez gainera, arauak ere ikasten eta barneratzen ditugu, gizarteko arau multzoek “**patroi kulturala**” osatzen dute: **jarraitu beharreko eredia edo eskema**

## Sozializazio motak

Generoa zer da,  
natura edo kultura?

Mutila izateak edo  
neska izateak zer  
dauka biologiatik?

Zer dauka kulturatik?

Bideo bat ikusi eta komentatuko dugu

# Sozializazioa eta bizitzaren etapak

## Haurtzaroa

- Askatasun-garai gisa gizarte industrial-modernoetan: ardurarik hartu beharrik gabe

## Nerabezaroa/ Gaztaroa

- Luzatzen ari den aldia (herri industrial eta postindustrialetan)
- Pertsona familiarik aldentzen hasten da
- Beste erreferentzia batzuk bilatzen dira (Laguntaldeak, komunikabideak)

# Sozializazioa eta bizitzaren etapak

## Helduaroa

- 25-35 urte, definitzeko irizpide ugari
- Nortasuna nahiko finkatuta dago
- Sozializazio esperientzia berri batzuk

## Zahartzaroa


- 65 urtetik gora
- Gazte eta zaharren arteko distantzia
- Gaztetasuna gurtzen da (zaharrak baztertuta)

# 2. GAIA. Sozializazioa

Sozializazio agenteak: Familia

# Sozializazio agenteak: Familia

- Jendarte eta kultura guztietan, familia **sozializazio-agente garrantzitsuena** da
- Familia gure bizitzako lehenengo urteetan **babesa eta laguntza emango digun taldea** da
- **Familia mota** (klase soziala, arraza, erlijioa,..) norberaren nortasunaren eraikuntzan garrantzitsua izango da
- Soziologia eta Pedagogia bat datoz: familiaren hezkuntza eta sozializazio jardunak nabarmen **baldintzatzen du eskola-errendimendua**
- Azken urteetan **aldaketa handiak** eman dira



## Familian jazotako aldaketak



- Familia instituzioa **garrantzia galduz joan da**
- **Gizarte tradizionaletan** familia funtsezko balioa da, eta zabala da (aitona-amonak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak,..)
- **Euskal Herrian** baserriaren edo etxearen inguruan antolatzen zen bai familia, bai bizitza soziala: familiak gizarteratzen du, familia produkzio zein erreprodukzio gunea da, familia-baserria-etxeak ematen du izena.
- **Gizarte industrial moderno eta posmodernoetan**, "Instituzio profesional" en esku geratzen dira gero eta funtzio gehiago
  - Jendea lantokira doa produzitzera, eskolara ikastera, gaixo eta zaharrak ospitalera,.. Lehen familiak betetzen zituen funtzio hauek guztiak



## Familian jazotako aldaketak



- Gizarte modernoetan, **familiak gero eta txikiagoak dira**: familia nuklearra gailendu da
  - Hiriaren garrantziak landaguneetako erkidego-sareak ahuldu ditu
- **Emakumeen papera familian** aldatuz joan da: II Mundu Gerratik emakumeen parte hartzea lan merkatuan handitu egin da
  - Industrializazioa garaian ere fabriketan aritu ziren
- Kontzilio politiken garapena: 80. urtetik aurrera ekonomia "aktibatzeko" estrategiaren baitan
  - Ondorio polemikoa: "gurasoak denbora gutxiago egoten dira etxean"
  - Emakumeak gizonaren rola hartu du lan merkatuan baina gizonak ez du berea hartu etxeko eremuan

## Familian jazotako aldaketak

### Testuak irakurri eta taldeka erantzun:

Gure etxean nola banatzen dira etxeke eta zaintza lanak? Aldaketarik nabaritu duzue?

Gure inguru hurbilean nolako familia ereduak ditugu? Testuan agertzen zaigun familia eredurik ezagutzen al dugu?

Honek guztiak ba al du eraginik gure sozializazioan? Zertan?

- Gaur egun, **pertsona bakarreko familiak** gero eta gehiago dira
- **Familia eredu berriak** ere ikusi ditzakegu: banandutako gurasoak, ama bakarreko familiak, bi amez osatutakoak, bi aitez osatutakoak, lagun sare edo sare sexu-afektibo zabalagoez osatutakoak, ..

## Familiaren eragina eskola-errendimenduan

“Oker daude, bada, dena eskolaren esku uzten duten gurasoak, seme-alaben hezkuntzaren errendimenduaren erantzunkizun osoa eskolaren gain uzten dutenak, alegia”  
(Taberner, 2008: 70).

### Kultur kapitala

- Hizkuntza, ikasketak, ezagutza, kultur jarrerak

### Kapital soziala

- Arreta, zaintza, interakzioa

Familiaren eragina eskola-  
errendimenduan

Lehen  
sozializazioaren  
defizita eskolara  
transmititzen da

Autoritate eza



Esfortzua,  
disziplina ez dira  
barneratzen

Gehiegizko  
autoritarismoa



Nortasun autoritario,  
intolerantea edo  
kontrakoa, errebeldeak

## Familiaren eragina eskola-errendimenduan

Jatorri sozialaren araberako kultura ezberdinak

### Familia tradizionalak/ Beheko klaseak

- Eskasiaren printzipioa erakustea
- Autoritatea errespetatzea
- Eskola: bigarren mailako helburu bat

### Erdi-mailako klaseak

- Eskola-sistemaren arrakasta lortzearen garrantzia
- "Ondasun kulturalak" pilatzea bilatzen da